

Amets alokatuak – kontzeptu etikoak lotzeko jarduera

Irakurri ondorengo egoerak eta lotu dagokien kontzeptu etikoarekin. Kontuan izan: egoera batzuk distraktoreak dira eta ez dira kontzeptu bakar bati lotzen. Gero, gehitu zuen adibidea.

KONTZEPTU ETIKOAK	ADIBIDEA	ZUEN ADIBIDEA
Askatasuna		
Injustizia soziala		
Konformismoa		
Erresistentzia		
Enpatia		
Identitatea		
Erabakimena		
Merkantilizazioa		

	ADIBIDEA
A	Pertsona bati amets egitea debekatu diote, eta beste batzuek, ordea, nahi adina amets eros ditzakete. Egoera hori normalizat jotzen du gizarteak, arau gisa onartua baitago.
B	Pertsonaiak badaki sistema bidegabea dela, baina ez du ezer egiten, arazoetan sartu nahi ez duelako eta “beti horrela izan delako”.
C	Ametsak diruaren truke erosi eta saltzen dira, eta pertsonen desioak produktu bihurtu dira, kalitatearen eta prezioaren arabera.
D	Pertsonaia batek arriskua hartu eta arauak hautsi egiten ditu, besteen ametsetarako eskubidea defendatzeko.
E	Pertsona batek beste baten egoera ulertzen du, bere tokian jartzen da, eta horregatik bere jokabidea aldatzen du.
F	Pertsonaia zalantzan hasten da: bere ametsik gabe, nor da bera? Beste baten ametsak bizitzeak bere burua galtzea dakar.
G	Pertsonaiak aukera zaila du aurrean: sistemaren parte izaten jarraitu edo aurka egin. Ondorioak egon arren, erabaki kontziente bat hartzen du.
H	Norberak amets egin edo pentsatzeko aukera izatea mugatua dago, kanpoko botereek baldintzatua.
I	Amets batzuk koloretsuagoak dira beste batzuk baino, eta horrek istorioari giro berezia ematen dio.
J	Istoria etorkizuneko hiri batean kokatzen da, teknologia oso aurreratua duen gizarte batean.